

Mintza

Odei BARROSO

BertSolasa

Gaia : Joan da uda... **Ahairea :** Semaforoak gorri ta berde

I

4 x 4-a, begilagunak,
galtzerdi xuri, txankleta,
baita lacoste kamiseta,
azentu eder, hizkuntza arrotz,
Ricard markadun kazketa.
Bost eguneko billeta eta
bosteuneko billeta,
tabakoz bete maleta.
Ideki dute urte osoan
itxita dagon txaleta.
Laster gu joan beharko gara
haien heldu dira eta

II

Udarak ere ezagutu du
aurtengo inbestidura,
diktatu du diktadura.
B.A.C. delakoa iritsi zaigu
Donibaneko zentrura.
Nahiz eguzkiak ez ezagutu
epaitegien zentsura,
goazen beste zentzura.
Nahiz eguzkiak argitu duen
berriro aurtengo uda
argi izpirik ez da iritsi
politikaren mundura.

III

Polizi batzuk helikopteroz,
besteak mountain bike-an...
askok arretat gripeAn.
hainbat bideo kamara hemen,
ta hainbat satelite han...
Jakiteko nor den asanbladan
ta nor festa komitean.
gaude haien begipean.
Udara pasa eta Anzaren
berririk ez jakitean.
alatu sinitz lehartu dira